

ARGAZKitzak

Argazki-testu lehiaketa

1

Lehen pausoa erraza da: jar zaitez eta pentsa ezazu jaso dituzun oparietan. Baten bat berezia izanen da, arrunt polita delako; baten batek zur eta lur utziko zintuen, zer dela-eta eman zizuten asmatu ezinean; izanen da ikaragarri itsusia dena, edo zinez arraroa. Bada, hauta ezazu bat. Nahi duzuna.

2

Egiozu argazki bat (edo bila ezazu haren argazki bat).

3

Konta iezaguzu, gehienez ere 350 hitzetan eta ikasten ari zaren hizkuntzan, opari horren historia.

4

Bidal itzazu biak, argazkia eta testua, helbide honetara:
eoipvdir@educacion.navarra.es

5

Hizkuntza bakoitzean testu-argazki kitzikagarriena aukeratuko dugu, eta irabazleei 50 €-ko bono bana emanen diegu urtarrilean eginen dugun zeremonia ttiki batean, Elkar liburu-dendan material didaktikoa erosteko.

6

Ikasle bakoitzak lan bakarra aurkezten ahal du. Lanak azaroaren 15etik abenduaren 15era bitarte entregatzen ahal dituzue.